

**ETAPA ERDIKO  
EBALUAZIO  
DIAGNOSTIKORAKO  
MARKOA**

**LHko 4. maila**

# **HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA**



## **Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI-IVEI)**

**2025eko urtarrila**

**AURKIBIDEA**

1. SARRERA.....	4
1.1. Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren definizioa .....	4
1.2. Lorpen adierazleak eta prozesu kognitiboak .....	5
1.3. Dimentsioak .....	8
2. DIMENTSIOAK, EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN ADIERAZLEAK HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIAN EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ.....	9
1 DIMENTSIOA: AHOZKO ETA IDATZIZKO ULERMENA.....	9
2 DIMENTSIOA: AHOZKO ETA IDATZIZKO EKOIZPENA .....	16
3. DIMENTSIOAK, EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN ADIERAZLEAK HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIAN ATZERRIKO HIZKUNTZAZ.....	26
1 DIMENTSIOA: AHOZKO ETA IDATZIZKO ULERMENA.....	26
2 DIMENTSIOA: AHOZKO ETA IDATZIZKO EKOIZPENA .....	30
I. ERANSKINA.....	39
II. ERANSKINA.....	40

## 1. SARRERA

Dokumentu honek Lehen Hezkuntzako etapan Hizkuntza Komunikaziorako Konpetentziaren (HKK) kanpo ebaluazioa egiteko Marko Teorikoren diseinuaren oinarri diren funtsezko elementuak deskribatzen ditu. Marko honek Euskal Autonomia Erkidegoan ezarritako Oinarrizko Hezkuntzako Curriculuma (77/2023 DEKRETUA) hartzen du oinarritzat, baita ISEI-IVEIk egindako ekarpenak ere.

EAEko curriculumari buruzko Dekretuaren 8. artikuluekin bat etorriz, ebaluazio honek bat egiten du ikasleen komunikazio eta hizkuntza konpetentzia kulturarteko ikuspegi eleaniztun batetik garatzeko lehentasunezko helburuekin, eta bereziki indartzen du euskararen erabilera. Dekretuaren arabera:

*"Derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan, ikasle guztiek euskaraz eta gaztelaniaz zuzentasunez ulertzeko eta adierazteko gai izan behar dute ahoz zein idatziz, baita testu eta mezu konplexuak sortzeko gai izan ere. Gainera, ulermen eta adierazpide egokia izango dute atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan".*

Ebaluazio Marko hau funtsezko tresna da Lehen Hezkuntzan komunikaziorako gaitasuna aztertzeke eta hobetzeko, EAEko hezkuntza sistemak ezarritako helburuak betetzen laguntzen baitu. Marko honetan Hizkuntza-Komunikaziorako konpetentzia definitzen da, baita ebaluazio irizpideak ere eta lorpen adierazle bakoitzaren errendimendu mailak zehazten dira.

Ebaluazio irizpideak aukera ematen dute konpetentzia klabe eta espezifikoaren garapen maila neurtzeko. Konpetentzia horiek lorpen adierazle behagarrietan zehazten dira, hiru errendimendu mailatan antolatuta: hasierako maila, erdi-maila eta maila aurreratua. Errendimendu maila bakoitza egoera jakin batzuk ebazteko ezagutzek, trebetasunek eta gaitasunek definitzen dute, eta aurreko mailetak konpetentziak ere lortu direla ziurtatzen du.

### 1.1. Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren definizioa

Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziak (HKK), Oinarrizko Hezkuntzako curriculumean definitzen den bezala, esan nahi du ahoz, idatziz edo zeinuz modu koherente eta egokian jardun behar dela hainbat esparru eta testuingurutan eta hainbat komunikazio-helbururekin modu kooperatiboan, sortzailean, etikoan eta errespetuzkoan.

Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia norberaren pentsamenduaren eta jakintzaren eremu guztietan ezagutza eraikitzeke oinarria da. Horregatik, hizkuntzak ezagutza-arlo bakoitzeko diskurtso genero espezifikoetan duen funtzionamenduari buruzko hausnarketa esplizituari lotuta dago haren garapena, bai eta ahozkotatasunaren, signazioaren edo idazketaren erabilerei ere, pentsatzeko eta ikasteko.

## 1.2. Lorpen adierazleak eta prozesu kognitiboak

Kanpo ebaluaziorako kontuan hartu diren lorpen adierazleak Onarrizko Hezkuntzako Curriculumean (77/2023 DEKRETUA) aipatutako Bigarren Hezkuntzako lehenengo zikloko ikasleek lortu behar dituzten konpetentzia espezifikoetan oinarritzen dira.

Ondoren, Lehen Hezkuntzako Euskara eta Gaztelania eta Literatura eta Atzerriko Hizkuntzako ikasleen Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren (HKK) konpetentzia espezifikoak:

Curriculumeko euskara eta literaturaren eta gaztelania eta literaturaren konpetentzia espezifikoak
1. EAEko eta inguruko eleaniztasuna eta kultura-aniztasuna aitortzea eta baloratzea, ikasleen eta haien inguruko hizkuntzen identifikaziotik eta interrelaziotik abiatuta, betiere hizkuntza-estereotipoak eta -aurreiritziak baztertzeko, hizkuntza guztiekiko jarrera positiboa eta errespetuzkoa izateko eta euskararen ohiko erabilerarekiko portaera asertiboak sustatzeko.
2. Ahozko testuak eta testu multimodalak ulertzea eta interpretatzea, zentzu orokorra eta informaziorik garrantzitsuena identifikatuz eta alderdi formalak eta oinarrizko edukiko alderdiak baloratuz, ezagutza erakitzeke eta komunikazio-premiei erantzuteke.
3. Ahozko testuak eta testu multimodalak koherentziaz, argitasunez eta erregistro egokiz sortzea, ideiak, sentimenduak eta kontzeptuak adierazteko; ezagutza erakitzea; lotura pertsonalak ezartzea; eta askotariko ahozko elkarrekintzetan autonomiaz eta jarrera kooperatibo eta enpatikoz parte hartzea.
4. Testu idatzi eta multimodalak ulertzea eta interpretatzea, testu horien zentzu globala, ideia nagusiak eta informazio esplizitua hartuz, eta alderdi formalei eta edukiei buruzko oinarrizko gogoeta eginez, ezagutza eskuratzeko eta erakitzeke eta askotariko komunikazio-beharrei eta -interesei erantzuteke.
5. Testu idatzi eta multimodalak zuzentasun gramatikalez eta ortografikoz sortzea, edukiak zuzen sekuentziatuz eta plangintzarako, idazketarako, berrikuspenerako eta ediziorako oinarrizko estrategiak aplikatuz, ezagutza erakitzeke eta komunikazio-eskaera zehatzei erantzuteke.
6. Bi iturritatik edo gehiagotik datorren informazioa modu planifikatuan bilatzea, hautatzea eta egiaztatzea, informazioaren fidagarritasuna ebaluatuz eta manipulatzeko eta desinformatzeko arriskuak ezagutuz, ezagutza eraldatzeko eta modu sortzailean jakinarazteko, ikuspuntu pertsonaletik eta jabetza intelektuala errespetatuz.
7. Gustuen eta interesen arabera aukeratutako askotariko obrak autonomiaz irakurtzea, irakurketa-esperientziak partekatuz, irakurle-nortasuna eraikitzen hasteko, irakurzaletasuna plazer-iturri gisa sustatzeko eta irakurketaren gizarte- eta kultura-dimentsioaz gozatzeko.
8. Ikaslearen garapenerako egokiak diren literatura-obrak edo horien zatiak irakurtzea, interpretatzea eta aztertzea, haien arteko erlazioak ezarriz eta literatura-generoa eta haren oinarrizko konbentzioak identifikatuz, literatura arte-adierazpen gisa ezagutzen hasteko eta plazer-eta ezagutza-iturri gisa eta literatura-asmoko testuak sortzeko inspirazio-iturri gisa ezagutzen hasteko.
9. Hizkuntzari buruz gogoeta egitea, testuinguru esanguratsuetako testuak sortzeko eta ulertzeko prozesuetatik abiatuta eta oinarrizko terminologia egokia erabiliz, ikasleak hizkuntzako eta hizkuntza arteko kontzientzia garatzen hasteko eta ahozko eta idatzizko produkzioaren eta ulermenaren trebetasunak hobetzeko.
10. Norberaren komunikazio-praktikak bizikidetzat demokratikoaren zerbitzura jartzea, hizkuntza ez-diskriminatzailea eta inklusiboa erabiliz eta hitzaren bidez botere-abusuak atzemanaz eta baztertuz, hizkuntzaren erabilera eraginkorra eta etikoa bultzatzeko.

**Curriculumeko atzerriko hizkuntzaren konpetentzia espezifikoak**

1. Argiro eta hizkuntza estandarrean adierazitako oinarritzko testu genero labur eta errazak ulertzea, hainbat estrategia erabiliz eta, beharrezkoa denean, hainbat laguntza mota baliatuz, zentzu orokorra eta informazio espezifikoa eta aurreikusteko modukoa ateratzeko eguneroko egoera komunikatiboetan.
2. Oinarritzko testu generoetako testu original errazak modu ulergarri eta egituratuan sortzea, plangintza edo konpentsazioa bezalako estrategiak erabiliz, berehalako mezu laburrekin lotutako mezu laburrak adierazteko eta eguneroko komunikazio-helburuei erantzuteko.
3. Beste pertsona batzuekin interakzioan jardutea, eguneroko esamoldeak erabiliz, kooperazio-estrategietara joz, baliabide analogiko eta digitalak baliatuz eta adeitasun-arauak errespetatuz, beren intereseko berehalako beharrei erantzuteko.
4. Aurreikusteko moduko egoeretan bitartekari izatea, informazio oinarritzkoa eta erraza prozesatzeko eta transmititzeko estrategiak eta ezagutzak erabiliz, komunikazioa errazteko.
5. Hizkuntza-errepertorio pertsonalak antzeman eta erabiltzea, berau osatzen duten hizkuntzen funtzionamenduari buruz gogoeta eginez eta norberaren estrategiak eta ezagutzak identifikatuz, atzerriko hizkuntzaren ikasteko gaitasuna hobetzeko eta egoera ezagunetan komunikazio-behar zehatzei hobeto erantzuteko.
6. Atzerriko hizkuntzatik abiatuta, hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna antzematea eta errespetatzea, hizkuntzen eta kulturen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak identifikatuz eta baloratuz, kulturarteko egoerak kudeatzen ikasteko.

**I. Eranskinean**, deskribatutako konpetentzia espezifikoen eta Marko honetako ebaluazio irizpideen arteko erlazioa azaltzen da.

Gainera, Marko Teoriko honetan, **lorpen adierazleak** jarraian agertze diren oinarritzko **Prozesu Kognitiboekin (PK)** erlazionatu dira. Prozesu Kognitibo horiek Bloom-en taxonomiatik abiatzen dira, eta eragiketa intelektualtzat hartzen dira. Ikasleak estimulu jakin baten aurrean aktibatzen ditu eta estimulu horrek helburu komun batera bideratutako ekintzak eragiten ditu: testuinguruan kokatutako zeregin bat ebaztea. Prozesu horiek konpetentzia espezifikoen analisitik abiatuta lortu dira. Jarraian datozenak Hezkuntza Ebaluaziorako Institutu Nazionalaren (INEE) ebaluazio Markoan proposatutako eredua jarraituz hautatu dira.

PROZESU KOGNITIBOAK	LOTUTAKO EKINTZAK	DESKRIBAPENA
1. Informazio zehatza aurkitu	ANTZEMAN AURKITU IDENTIFIKATU	<p>Emandako informazio batetik abiatuta, kontzeptu edo definizio esplizituak <b>antzematea</b>, datu zehatz bat edo gehiago lortzeko.</p> <p>Testuan dauden eta testua osatzen duten elementuei (espazioa, denbora, pertsonaiak, ekintzak, giroak, deskribapenak...) dagozkien ideia agerikoak <b>aurkitzea</b>.</p> <p>Modu independentean agertzen den grafiko, taula edo mapa bateko datuak <b>identifikatzea</b>, edo ahozko mezu batekin konbinatuta, edo testu batean espresuki agertzen den diskriminazio-izaera ezagutzea.</p>
2. Inferentzia zuzenak egin	AUKERATU ERLAZIONATU INFERITU	<p>Informazio errazen zuzeneko <b>inferentziak egitea</b>, bi ideia edo gehiago edo informazio zatiak ulertuz, hautatuz edo erlazionatuz, testuan jasotako datuetatik abiatuta, esplizituki. Maila horretako inferentziak hainbat eremutan loturak ezartzetik abiatzen dira, hala nola kausalitate-harremanetan, pertsonaia baten edo batzuen portaeraren arazoietan edo horien arteko harremanetan. Testu dinamiko batean, ikasleek ondoriozta dezakete zein esteka edo webgune den zuzena helburu bat lortzeko.</p>
3. Ideia eta informazioa integratu eta interpretatu	KONTRASTATU ONDORIOZTATU INTERPRETATU	<p>Testutik <b>informazio inplizitua ateratzea</b> ondorian bidez, bai bere helburuari dagokionez, bai bere ideia nagusi edo bigarren mailakoei dagokienez.</p> <p>Testua ikuspuntu metalinguistikotik <b>interpretatzea</b>. Irudizko adiera hizkuntza interpretatzea. Testuen hitzezko eta hitzik gabeko alderdiek eta horien informazio eta datu garrantzitsuek osatzen dute prozesu kognitiboen maila hau.</p>
4. Edukiak eta informazioa hausnartu eta baloratu	EBALUATU BALORATU HAUSNARTU	<p>Egoera edo egitate bat <b>ebaluatzea</b>, kontzeptuzko erreferentzia-markotik bertatik sortutako ezagutza, ideia, esperientzia edo jarrerak erabiliz, iritzi bat emateko edo iritzi bat ezartzeko.</p> <p>Irudizko adiera hizkuntzarekin, testuaren osagaien egokitasunarekin (izenburua, adibidez) edo argumentu baten konbentzitzeko gaitasunarekin lotutako gaiak <b>baloratzea</b>.</p> <p>Hizkuntzaren eta testuen alderdi ezberdinei buruz <b>hausnartzea</b>; jarrerekin lotutako gaiei buruz (hizkuntzaren erabilera diskriminatzailea eta botere-abusua, genero-ikuspegia, herritartasun globala edo kulturartekotasuna).</p>

Hezkuntza-etapa honetarako deskribatutako Prozesu Kognitiboek lotura zuzena dute ISEI-IVEIren Markoaren lorpen adierazleekin, eta hauek konplexutasun txikienetik handienera ordenatuta identifikatzen dira. II. eranskinean, bi elementuen arteko elkarrekikotasuna erakusten duen taula bat erantsi da.

### 1.3. Dimentsioak

Hizkuntza-Komunikaziorako Konpetentzia funtsezko bi dimentsiotan egituratzen da, eta horiek askotariko komunikazio-testuingurutan eraginkortasunez elkarrekin jarduteko beharrezko trebetasunak biltzen dituzte.

- **1 Dimentsioa: Ahozko eta idatzizko ulermena**
- **2 Dimentsioa: Ahozko eta idatzizko ekoizpena**

#### 1 Dimentsioa: Ahozko eta idatzizko ulermena

Dimentsio honek eskatzen du ahozko, idatzizko, ikus-entzunezko eta erabilera anitzeko testuen mezuak ulertzeko, interpretatzeko eta kritikoki balioesteko bidea ematen duten ezagutzen, trebetasunen eta jarrerren multzoa modu kontzientean mobilizatzea, manipulazio eta desinformazio arriskuak saihestuz.

Ahozko eta idatzizko ulermenaren dimentsioak definitzen ditu lorpen adierazleen multzoa ezartzeko oinarria osatzen duten ebaluazio irizpideak. Lorpen adierazle horiek prozesu kognitibo batzuekin lotzen dira (ikus II. eranskina). Prozesu horiei esker, ikasleak errendimendu maila ezberdinetan kokatzen dituzten ulermen-mailak sor daitezke, lorpen adierazlearen eskuratze-maila deskribatuz.

#### 2 Dimentsioa: Ahozko eta idatzizko ekoizpena

Dimentsio honek hainbat esparru eta testuingurutan eta hainbat komunikazio helbururekin ahoz, idatziz edo modu koherente eta egokian elkarri eragitea barne hartzen du.

Ahozko eta idatzizko ekoizpenaren dimentsioak hiru gaitasun barne hartzen ditu, hauek Europako Erreferentzia Markoaren arabera, komunikazio gaitasunaren osagai bakoitzat hartzen dira, ondorengo hauek:

**2.1. Gaitasun soziolinguistikoa:** testua planteatutako komunikazio-egoerara eta diskurtso-testuingurura egokitzeari erreferentzia egiten dio. Gainera, testua edo diskurtsoa eskatutako gaiari eta testuinguruak eskatzen duen erregistroari egokitasunez doitzen zaion aintzat hartzen du. Atal honetan, ahozko adierazpenaren eta solaskideekiko ahozko elkarreraginaren autonomia ere kontuan hartuko da.

**2.2. Gaitasun diskurtsiboa:** gaitasun diskurtsiboak, funtsean, ahozko edo idatzizko testuaren koherentziari eta kohesioari erreferentzia egiten dio. Koherentzia testuaren edukia zentzu-unitate bakar gisa modu globalean antolatzeako propietatea da, informazioaren hautaketa eta ideien garapena aintzat hartuz. Kohesioak, bestalde, testuaren informazioaren arteko erlazioak ezartzea ahalbidetzen duten hizkuntza-mekanismoak biltzen ditu. Gainera, ahozko ekoizpenean, irizpide honek zer jarotasunez sortzen den komunikazioa ebaluatzen du.

**2.3. Gaitasun linguistikoa:** gaitasun linguistikoa ahozko edo idatzizko ekoizpen bat behar bezala egiteko testua hizkuntza-araudira egokitzen den propietatea da, lexikoari, morfosintaxiari eta ortografiari eta puntuazioari (idatzizko testuetarako) edo ezaugarri prosodikoei (ahozko ekoizpenerako) dagokienez.

Gaitasun hauek ebaluazio irizpideak definitzen dituzte eta irizpideak lorpen adierazle multzo bat osatzeko oinarritzat hartzen dira. Dimentsio honen ebaluazioa ez da ulermenaren dimentsioan bezala Prozesu Kognitiboen bitartez ebaluatuko, izan ere, aipatu prozesuak zereginetan inplizituak daude eta amaierako ekoizpenaren bitartez ebaluatzen dira. Ebaluazio irizpideak ezberdinak dira ekoizpena ahozkoa edo idatzizkoa denean. Honekin guztiarekin, errendimendu maila desberdinak zehazten dira, bai ahozko ekoizpenerako, bai idatzizkorako ere, ikasleak irizpide bakoitzaren lorpen mailan kokatuz.



## 2. DIMENTSIOAK, EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN ADIERAZLEAK HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIAN EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ

### 1 DIMENTSIOA: AHOZKO ETA IDATZIZKO ULERMENA

Ondorengo ebaluazio-irizpideak ikasleen esperientziatik hurbil dauden testu idatzi, ahozko eta multimodalen ulermenari eta interpretazioari aplikatzen zaizkie. Testuak zenbait euskarritan aurkezten dira eta pertsonen arteko harremanen, komunikabideen, hezkuntzaren eta gazte-literatura klasikoaren eta gaur egungoaren erabilera-eremuetako generoei dagozkienak dira.

Ebaluazio-irizpideak ondorengoak dira:

- 1.1. Zentzu orokorra ulertzea.
- 1.2. Informazio zehatza aurkitzea.
- 1.3. Komunikazio-egoeraren elementuak antzematea.
- 1.4. Inferentziak egin eta testuaren edukia interpretatzea.
- 1.5. Ezagutza linguistikoak erabili eta forma interpretatzea.
- 1.6. EAEko hizkuntza-aniztasuna baloratzea.

Jarraian, ahozko eta idatzizko ulermenaren eta ekoizpenaren dimentsioen ebaluazio-irizpideak agertzen dira, bakoitzari dagozkion lorpen-adierazle eta adierazle bakoitzari lotutako hiru errendimendu-mailak zehaztuta.

**Ahozko ulermenaren** ebaluazioan, funtsezkoa da itemak egiteko erabiltzen diren testuak. Testu horiek erabilera-eremuen, testu-moten eta generoen inguruan antolatzen dira.

Aukeratzen ditugun testu motak:

1. Deskribapena (iragarkiak, deskribapenak...).
2. Narrazioa (kontakizunak, albisteak ...).
3. Azalpena (esplikazioak, oharra...).
4. Argumentazioa (iragarkiak, ahozko eztabaidak ...).
5. Instrukzioa (errezetak, jarraibideak ...).
6. Transakzioa (mezuak, parte hartzeko programak ...).

Erabilera-eremuak	Generoak (ahozko testuak)
Pertsonen arteko harremanak	Elkarriketak, jarraibideak, esperientzien kontakizunak, mezu laburrak, arauak...
Komunikabideak	Berriak, elkarriketak, oharpenak, iragarkiak...
Akademikoa	Deskribapenak (pertsonek, objektuek, animaliek...), jarraibideak (tresna batek nola funtzionatzeko duen), dokumentalak, aurkezpenak, definizioak, azalpenak...
Literatura	Kantak, olerkiak, kontakizunak, ipuinak...

**Idatzizko ulermenaren** ebaluazioan, funtsezkoa da itemak egiteko erabiltzen diren testuak. Testu horiek erabilera-eremuen, testu-moten eta generoen inguruan antolatzen dira.

Hautatzen ditugun testu motak honako hauek dira:

1. Deskribapena (liburuxkak, ordutegiak, deskribapenak ...).
2. Narrazioa (kontakizunak, albisteak ...).
3. Azalpena (grafikoak, azalpen-testuak ...).
4. Argumentazioa (zuzendariari gutunak, iragarkiak...).
5. Instrukzioa (errezetak, jarraibideak ...).
6. Transakzioa (gutunak, iritzia ...).

Erabilera-eremuak	Generoak (idatzizko testuak)
Pertsonen arteko harremanak	Gutunak, jarraibideak, gonbidapenak, oharpenak, oharrek, ordutegiak, errezetak, menuak, elkarriketak...
Komunikabideak	Liburuxkak, iragarkiak, berriak, hizketaldiak, eguraldiari buruzko informazioa, horma-irudiak, tiketak, ekintza programak, katalogoak, informazio artikulak...
Akademikoa	Deskribapenak (pertsonak, objektuak, animaliak...), jarraibideak (tresna batek nola funtzionatzen duen), informazio-liburuxkak (lehen laguntzak, turismo-gidak...), dibulgaziozko testuak, azalpenak, definizioak, azalpenak, laburpenak, grafikoak, eskemak, testuliburuak, biografiak, entziklopediak, hiztegiak...
Literatura	Kantak, olerkiak, kontakizun laburrak, ipuinak, alegiak, komikiak...

### 1.1. Zentzu orokorra ulertzea

#### Lorpen-adierazleak

- 1.1.1. Testuaren gaia antzematen du. PK1
- 1.1.2. Ideia nagusia antzematen du. PK1
- 1.1.3. Gaiari egokitzen zaion izenburua hautatzen du. PK2
- 1.1.4. Testuaren sekuentziak edo egitura antzematen du. PK1

#### Errendimendu mailak

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
Zailtasunez ulertzen du testuaren esanahi orokorra. Ia ez du gaia eta testuaren ideia nagusia antzematen, oso agerikoa ez bada. Egituraren zati bat edo sekuentzia argi eta laburren bat ezagutzen du. Izenburua hautatzeko zailtasunak ditu.	Testuaren esanahi orokorra ulertzen du, oro har, gaia eta ideia nagusia antzemanen eta egitura edo sekuentzia, argia eta laburra denean. Gainera, izenburu egokia hautatzen du, gaia agerikoa denean.	Testuaren esanahi orokorra ulertzen du. Gaia antzematen du, ideia nagusiak baita haren sekuentzia edo egitura ere antzemanen. Gainera, izenburu egokiena hautatzen du.

### 1.2. Informazio zehatza aurkitzea

#### Lorpen adierazleak

- 1.2.1. Informazio zehatza aurkitzen du. PK1
- 1.2.2. Antzeko datuak edo informazio zehatza erabiltzen du. PK2
- 1.2.3. Iturri ezberdinetako testuen informazio zehatza erlazionatzen du. PK2

#### Errendimendu mailak

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
Zailtasunez aurkitzen du testuaren oinarritzko informazioa. Datu zehatzen bat erabiltzen du eta testu erraz baten edo biren oinarritzko informazioa erlazionatzen du.	Testuaren informazio zehatz gehiena aurkitzen du. Testuaren datu zehatzak erabiltzen ditu, eta testu desberdinetako oinarritzko informazioa erlazionatzen du.	Testuaren informazio zehatza aurkitzen du, haren datu espezifikoak erabiltzen ditu, eta hainbat testutako informazioa erlazionatzen du.

### 1.3. Komunikazio-egoeraren elementuak antzematea

#### Lorpen adierazleak

- 1.3.1. Komunikazio-egoeraren osagaiak antzematen ditu (igorlea, hartzailea...). PK1
- 1.3.2. Testuaren helburua inferitzen du. PK2
- 1.3.3. Testu-mota, erabilera-eremua edo generoa ondorioztatzen du. PK3
- 1.3.4. Testua zein ingurunetan kokatzen den ondorioztatzen du (espazioa eta denbora). PK3
- 1.3.5. Ataza bat ebazteko iturri egokiena, analogikoa edo digitala, hautatzen du. PK1

#### Errendimendu mailak

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
Oro har, komunikazio-egoeraren osagaien bat antzematen du eta helburua inferitzen du, modu agerikoan agertzen bada. Era berean, testuaren ezaugarriren bat eta kokatzen den testuingurua ondorioztatzen ditu, agerikoa bada eta ataza bat ebazteko iturri egokia zailtasunez hautatzen du.	Oro har, komunikazio-egoeraren osagaiak antzematen eta helburua inferitzen ditu. Era berean, testuaren ezaugarri batzuk eta kokatzen den testuingurua ondorioztatzen ditu, eta ataza bat ebazteko iturri egokia hautatzen du, testuingurua zehaztuta badago.	Komunikazio-egoeraren osagaiak antzematen eta helburua inferitzen ditu. Era berean, testuaren ezaugarriak eta kokatzen den testuingurua ondorioztatzen ditu, eta ataza bat ebazteko iturri egokia hautatzen du.

#### 1.4. Inferentziak egin eta testuaren edukia interpretatzea

##### Lorpen-adierazleak

- 1.4.1. Testuaren edukia interpretatzen du, bere ezagutzetatik abiatuta. PK3
- 1.4.2. Testu baten edo iturri desberdinetako testuen edukiari buruzko oinarritzko inferentziak egiten ditu. PK3
- 1.4.3. Testuaren edukiari buruzko oinarritzko hipotesiak egiten ditu (adibidez, istorio bat nola amaitu daitekeen, emandako informazioa errealitatean gerta daitekeen...). PK4
- 1.4.4. Testuaren fidagarritasuna ondorioztatzen du (benetako informazioa, iritziak...) euskarri desberdinetan. PK3
- 1.4.5. Testu baten edo batzuen argudio errazak interpretatzen ditu. PK3
- 1.4.6. Edukizko baliabide estilistikoak interpretatzen ditu (konparazioa, hiperbolea, kontrastea...). PK3
- 1.4.7. Hizkuntzaren erabilera inklusibo eta diskriminatzaile nabarmenak identifikatzen ditu. PK1

##### Errendimendu mailak

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
Testuaren edukiaren zati batzuk zailtasunez interpretatzen ditu bere ezagutzetatik abiatuta, eta inferentzia zehatz eta errazak egiten ditu testuan. Testuaren edukiari buruzko hipotesi zuzenen bat egiten du eta argi ikusten bada, testuen fidagarritasuna ondorioztatzen du. Argudio errazen bat interpretatzen du, baita edukizko baliabide estilistikoren bat ere. Hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak ere identifikatzen ditu oso nabarmenak direnean.	Edukiaren zati bat interpretatzen du bere ezagutzetatik abiatuta, eta inferentzia zehatzak egiten ditu iturri ezberdinetako testuetan. Testuaren edukiari buruzko hipotesi batzuk egiten ditu eta testu jakin batzuen fidagarritasuna ondorioztatzen du. Argudio zehatz eta argiak interpretatzen ditu, baita edukizko oinarritzko baliabide estilistikoak ere. Hizkuntzaren erabilera diskriminatzaile jakin batzuk ere identifikatzen ditu.	Testua interpretatzen du bere ezagutzetatik abiatuta, eta inferentziak egiten ditu iturri ezberdinetako testuetan. Testuaren edukiari buruzko hipotesiak egiten ditu eta testuen fidagarritasuna ondorioztatzen du. Argudio argiak interpretatzen ditu, baita edukizko baliabide estilistikoak ere. Hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak ere identifikatzen ditu.

### 1.5. Ezagutza linguistikoak erabili eta forma interpretatzea

#### Lorpen-adierazleak

1.5.1. Testuaren ulermenean hizkuntza-ezagutzak erabiltzen ditu. PK2

1.5.2. Ahozko testuaren elementu ez-linguistikoak (barreak, isiluneak, keinuak...) eta idatzizkoarenak (letra lodia, irudiak, sinboloak...) interpretatzen ditu. PK3

1.5.3. Formari buruzko baliabide estilistikoak interpretatzen ditu (onomatopeiak, errepikapenak...). PK3

1.5.4. Testuan erabilitako hiztegia antzematen du. PK3

#### Errendimendu mailak

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
Oso oinarritzko ezagutza linguistiko jakin batzuk erabiltzen ditu eta elementu ez-linguistiko gutxi batzuk interpretatzen ditu ahozko edo idatzizko testua ulertzeko. Testu edo diskurtsoan oinarritzko baliabide estilistikoak antzematen ditu eta erabilitako lexikoaren zati bat ere.	Ezagutza linguistiko jakin batzuk erabiltzen ditu eta elementu ez-linguistiko batzuk interpretatzen ditu ahozko edo idatzizko testua ulertzeko. Oro har, testu edo diskurtsoan baliabide estilistiko errazak antzematen ditu eta erabilitako lexikoaren gehiengoa ere.	Ezagutza linguistikoak erabiltzen ditu eta elementu ez-linguistikoak interpretatzen ditu ahozko edo idatzizko testua ulertzeko. Testu edo diskurtsoan baliabide estilistikoak antzematen ditu eta erabilitako lexikoa ere.

## 1.6. EAEko hizkuntza-aniztasuna baloratzea

### Lorpen-adierazleak

1.6.1. EAEko hizkuntza ofizialak balioesten ditu. PK4

1.6.2. Inguruko hizkuntza- eta kultura-aniztasuna balioesten ditu. PK4

1.6.3. Euskal kultura-aberastasuna eta aberastasun unibertsala hainbat adierazpen artistiko edo kulturalen bidez (gazte-literaturako edo literatura klasikoko testuak, bertsolaritza...) interpretatzen ditu. PK4

1.6.4. Ahozko eta idatziko testuen oinarritzko alderdiak beste adierazpen artistiko edo kultural ezagun batzuekin erlazionatzen ditu. PK2

1.6.5. Hizkuntza ofizialak erlazionatzen ditu ulermena hobetzeko (terminoen itzulpenak, transferentziak...). PK2

### Errendimendu mailak

Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
Hizkuntza ofizialen eta euskal aberastasun kulturalaren oinarritzko alderdiak baloratzen ditu bere esperientziatik hurbil dauden adierazpen artistiko edo kulturalen bidez. Testuen oinarritzko alderdiren bat bere esperientziatik hurbil eta ezaguna den beste adierazpen artistiko edo kulturalen batekin erlazionatzen du. Hizkuntza ofizialen ezaugarri errazen bat erlazionatzen du ulermena hobetzeko.	Hizkuntza ofizialen eta euskal aberastasun kulturalaren alderdi jakin batzuk baloratzen ditu bere esperientziatik hurbil dauden adierazpen artistiko edo kulturalen bidez. Oro har, testuen oinarritzko alderdiak bere esperientziatik hurbil eta ezagunak diren beste adierazpen artistiko edo kulturekin erlazionatzen ditu eta hizkuntzen aurkako adierazpen diskriminatzaile batzuk identifikatzen ditu. Hizkuntza ofizialen oinarritzko ezaugarriak erlazionatzen ditu ulermena hobetzeko.	Hizkuntza ofizialak eta euskal aberastasun kulturala baloratzen du, bere esperientziatik hurbil dauden adierazpen artistiko edo kulturalen bidez, eta testuen alderdiak bere esperientziatik hurbil dauden beste adierazpen artistiko edo kulturekin erlazionatzen ditu. Hizkuntza ofizialak erlazionatzen ditu ulermena hobetzeko.

## 2 DIMENTSIOA: AHOZKO ETA IDATZIZKO EKOIZPENA

Ekoizpenaren dimentsioetan, ikasleak ahozko eta idatzizko testuak sortzen ditu. Adierazpen-trebetasunen ebaluazioa ez da prozesu kognitiboetatik abiatuta egingo, ulermenean bezala; aipatu prozesu kognitiboak zereginetan inplizituak daude, eta ahozko edo idatzizko azken produktuaren bidez ebaluatzen dira.


Ekoizpenaren esparruan ondorengo gaitasunak ebaluatuko dira:

2.1. Gaitasun soziolinguistikoa.

2.2. Gaitasun diskurtsiboa.

2.3. Gaitasun linguistikoa.

Gaitasun hauek ebaluazio-irizpideen bidez ebaluatzen dira; hauek, era berean, lorpen-adierazleetan eta hasierako errendimendu-maila, erdikoa eta aurreratuan zehazten dira. Ondoren, gaitasun hauek errubrika batean antolatuko dira, ikasleen ekoizpenak ebaluatzeko. Graduazioa taula honetan ageri da:



LHko 4. mailan ikasleei ahozko edo idatzizko testuak sortzeko eskatzen zaie, komunikazio-egoera jakin baten ereduari jarraituz. Testu horiek errazak dira, egitura sinpleak eta maiz erabiltzen den lexikoarekin ikasleen interesetatik eta esperientziazatik hurbil dauden esparru edo gaiei buruzkoak.

Erabilera eremuak	Generoak (ahozko testuak)	Generoak (idatzizko testuak)
Pertsonen arteko harremanak	Jarraibideak, esperientzien kontakizunak, mezu laburrak...	Gutunak, egunerokoak, gonbidapenak, oharpenak, oharak, errezetak, elkarrizketak...
Komunikabideak	Berriak, elkarrizketak, oharpenak...	Iragarkiak, elkarrizketak, eguraldiari buruzko informazioa, informazio artikulua, berriak...
Akademikoa	Deskribapenak (pertsonak, objektuak, animaliak...), oinarritzko jarraibideak, definizioak, azalpenak...	Deskribapenak (pertsonak, objektuak, animaliak...), oinarritzko jarraibideak, azalpenak, biografiak...
Literatura	Kantak, kontakizun laburrak, ipuinak...	Olerkiak, kontakizun laburrak, ipuinak...



Ondoren, gaitasunak, ebaluazio-irizpideak eta horien lorpen-adierazleak deskribatzen dira, baita horietako bakoitzaren errendimendu-mailak ere.

## EKOIZPENAREN GAITASUNAK

### 2.1. Gaitasun soziolinguistikoa

Gaitasun soziolinguistikoak testua planteatutako komunikazio-egoerara eta diskurtso-testuingurura egokitzeari erreferentzia egiten dio. Gainera, testua edo diskurtsoa eskatutako gaiari eta testuinguruak eskatzen duen erregistroari egokitasunez doitzen zaion aintzat hartzen du. Atal honetan, ahozko ekoizpenaren eta solaskideekiko ahozko elkarreraginaren autonomia ere kontuan hartuko da.

Ekoizpenak ebaluazio-irizpide hauen arabera ebaluatzen dira:

- **Testuaren helburua.** Helburua da testuaren edo diskurtsoaren helburua errespetatzea, testu-motaren edo -generoaren ezaugarriei dagokienez, komunikazio-egoera kontuan hartuta.
- **Gaiaren egokitasuna eta garapena.** Ahozko edo idatzizko ekoizpenak estimulan zehazten den gaiari buruzkoa izan behar du, eta behar bezala garatuta egon behar du.
- **Hizkuntza ez-diskriminatzailea.** Adierazpen diskriminatzaileak saihesten ditu.
- **Autonomia (ahozko ekoizpena).** Autonomia ahozko testua sortzeko independentzia eta komunikazioa mantentzeko estrategien erabilera da (galderak, laguntza eskatzea, beste hizkuntza batzuetako hitzak...).
- **Elkarreragina (ahozko ekoizpena).** Elkarreraginak elkarriketetan parte hartzea, entzute aktiborako jarrera eta elkarriketa-estrategien erabilera biltzen ditu (esku-hartzeak eta hitz egiteko txanda errespetatzea, kortesiazko formulak...).

Ebaluazio irizpideak	Lorpen adierazleak	
Testuaren helburua	Ahozko eta idatzizko ekoizpena	2.1.1. Testuaren edo diskurtsoaren helburua errespetatzen du, generoari edo motari dagokionez.
Gaiaren egokitasuna eta garapena		2.1.2. Testua edo diskurtsoa proposatutako gaira egokitzen du. 2.1.3. Gaia modu onargarrian garatzen du.
Hizkuntza ez-diskriminatzailea		2.1.4. Edozein motatako adierazpen diskriminatzaileak saihesten ditu.
Autonomia	Ahozko ekoizpena	2.1.5. Ahoz modu autonomoan komunikatzen da, eta diskurtsoari eusteko estrategiak erabiltzen ditu (galderak, laguntza-eskaera, beste hizkuntza batzuetako hitzak...).
Elkarreragina		2.1.6. Parte hartzen du elkarriketetan. 2.1.7. Entzute aktiboa mantentzen du 2.1.8. Oinarrizko elkarriketa-estrategiak erabiltzen ditu.

## Errendimendu mailak

## Idatzizko ekoizpena

Ebaluazio irizpideak	Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<b>Testuaren helburua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testuak partzialki betetzen du helburua generoari edo motari dagokionez, edo ez da betetzen, beste testu mota bat edo beste genero bat izanik.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Oro har, testuaren helburua betetzen da, generoari edo motari dagokionez.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testuaren helburua betetzen da, generoari edo motari dagokionez.</li> </ul>
<b>Gaiaren egokitasuna eta garapena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testua zati batean egokitzen da gaira edo beste gai bati heltzen dio.</li> <li>- Gaiaren garapen eskasa dago.</li> <li>- Ez daki adierazpen diskriminatzaileak erabiltzen ari den ala ez.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testua, oro har, gaiari egokitzen zaio.</li> <li>- Gaia nahiko garatu da.</li> <li>- Ez ditu kontzienteki erabiltzen adierazpen diskriminatzaileak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testua gaiari egokitzen zaio.</li> <li>- Gaia behar bezala garatzen da.</li> <li>- Ez du adierazpen diskriminatzaileak erabiltzen.</li> </ul>

## Ahozko ekoizpena

Ebaluazio irizpideak	Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<b>Testuaren helburua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testuak partzialki betetzen du helburua generoari edo motari dagokionez, edo ez da betetzen, beste testu mota bat edo beste genero bat izanik.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Oro har, testuaren helburua betetzen da, generoari edo motari dagokionez.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testuaren helburua betetzen da, generoari edo motari dagokionez.</li> </ul>
<b>Gaiaren egokitasuna eta garapena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testua zati batean egokitzen da gaira edo beste gai bati heltzen dio.</li> <li>- Gaiaren garapen eskasa dago.</li> <li>- Ez daki adierazpen diskriminatzaileak erabiltzen ari den ala ez.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testua, oro har, gaiari egokitzen zaio.</li> <li>- Gaia nahiko garatu da.</li> <li>- Ez ditu kontzienteki erabiltzen adierazpen diskriminatzaileak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testua gaiari egokitzen zaio.</li> <li>- Gaia behar bezala garatzen da.</li> <li>- Ez du adierazpen diskriminatzaileak erabiltzen.</li> </ul>
<b>Autonomia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ahoz ez da modu oso autonomoan komunikatzen, eta laguntza behar du diskurtsoari eusteko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ahoz nahiko modu autonomoan komunikatzen da, laguntza puntuala behar badu ere, eta diskurtsoari eusteko estrategia batzuk erabiltzen ditu (galderak, laguntza eskatzea, beste hizkuntza batzuetako hitzak...).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ahozko komunikazioa autonomoa da eta zenbait estrategia erabiltzen ditu diskurtsoa mantentzeko beharrezkoa denean (galderak, laguntza eskatzea, beste hizkuntza batzuetako hitzak...).</li> </ul>
<b>Elkarreragina</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarrizketetan parte hartze eskasa.</li> <li>- Entzuteko jarrera ez oso aktiboa erakusten du.</li> <li>- Ia ez du elkarrizketa-estrategiarik erabiltzen, parte-hartze faltagatik.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Oro har, elkarrizketetan parte hartzen du.</li> <li>- Oro har, entzute aktiboa erakusten du.</li> <li>- Elkarreragina errazten duten oinarritzko elkarrizketa-estrategiak erabiltzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarrizketetan parte hartzen du.</li> <li>- Entzute aktiboko jarrera erakusten du.</li> <li>- Elkarreragina errazten duten elkarrizketa-estrategiak erabiltzen ditu.</li> </ul>

## 2.2. Gaitasun diskurtsiboa

Diskurtso-gaitasunak, funtsean, ahozko edo idatzizko testuaren koherentziari eta kohesioari erreferentzia egiten dio

Koherentzia testuaren edukia zentzu-unitate bakar gisa modu globalean antolatzeke propietatea da, informazioaren hautaketa eta ideien garapena aintzat hartuz.

Kohesioak, bestalde, testuaren informazioaren arteko erlazioak ezartzea ahalbidetzen duten hizkuntza-mekanismoak biltzen ditu.

Gainera, ahozko adierazpenean, irizpide honek komunikazioa zein jariakortasunekin gertatzen den ebaluatzen du.

Ekoizpenak ebaluazio-irizpide hauen arabera ebaluatuko dira:

- **Informazioaren koherentzia eta progresioa.** Informazioa behar bezala hautatzeaz eta garatzeaz ari da, gaiaren arabera, eta kontraesanik gabe edo beharrezkoak ez diren ideiak errepikatu gabe.
- **Kohesio mekanismoak.** Testu edo diskurtso kohesionatu bat egiteko beharrezkoak diren lokailuak eta testu-antolatzaileak aipatzen ditu, bai eta informazioa kokatzen duten testu-erreferenteak eta ideiak paragrafoetan antolatzea ere, testu-generoa errespetatzen duen eduki-egitura logiko baten bidez, izenburua barne. Era berean, ideiak modu logiko eta ordenatuan antolatzeari egiten dio erreferentzia. Diskurtsoa ulargarria izatea ere barne hartzen du.
- **Hitz-jarioa (ahozko ekoizpena).** Erritmo egokian adieraztean datza, gehiegizko ebaketak edo etenaldiak saihestuz.

Ebaluazio irizpideak	Lorpen adierazleak	
<b>Informazioaren koherentzia eta progresioa</b>	<b>Ahozko edota idatzizko ekoizpena</b>	2.2.1. Ahozko edo idatzizko testuak sortzen ditu, eta horien informazioak aurrera egiten du, kontraesanik edo alferrikako errepikapenik gabe. 2.2.2. Ideiak eta datuak behar bezala azaltzen ditu. 2.2.3. Testuaren generoaren antolamendu-egitura errespetatzen du. 2.2.4. Izenburu egokia idazten du.
<b>Kohesio-mekanismoak</b>		2.2.5. Idatzitako testua paragrafotan antolatzen du. 2.2.6. Testu edo diskurtso kohesionatu bat sortzen du, beharrezko testu-lokailuak eta -antolatzaileak erabilita. 2.2.7. Erreferenteari eusten dio testu osoan zehar.
<b>Hitz-jarioa</b>	<b>Ahozko ekoizpena</b>	2.2.8. Ahoz jariotasunez adierazten da.

## Errendimendu mailak

## Idatzizko ekoizpena

Ebaluazio irizpideak	Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<b>Informazioaren koherentzia eta progresioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ia aurrera egiten ez duen informazioa idazten du, kontraesan eta errepikapenekin.</li> <li>- Oso koherenteak ez diren ideiak edo datuak agertzen dira.</li> <li>- Testu-egiturarik edo egitura oso eskematikorik ez izatea.</li> <li>- Izenburu eza edo desegokia.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurrera egiten duen informazioa idazten du, kontraesan edo errepikapenen batekin.</li> <li>- Ideiak eta datuak nahiko modu koherentean azaltzen ditu.</li> <li>- Testuaren zatirik handiengan generoaren egitura errespetatzen du.</li> <li>- Izenburu egoki bat idatz dezake.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontraesan edo alferrikako errepikapenik gabe aurrera egiten duen informazioa idazten du.</li> <li>- Ideiak eta datuak modu koherentean azaltzen ditu.</li> <li>- Generoaren egitura errespetatzen du.</li> <li>- Izenburu egoki bat idazten du.</li> </ul>
<b>Kohesio-mekanismoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testua ez da paragrafoetan antolatuta agertzen.</li> <li>- Kohesio gutxiko testua sortzen du, testu-lokailurik edo -antolatzailearik gabea.</li> <li>- Testuaren zati batzuetan erreferentea galtzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testuak baditu batzuetan adierazitako ideiekin bat ez datozen paragrafoak.</li> <li>- Testu kohesionatu bat sortzen du, lokailu eta testu-antolatzaile batzuk erabiliz.</li> <li>- Testuaren zatirik handiengan erreferenteari eusten dio.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bere testua paragrafotan antolatzen du, eta paragrafo horiek, oro har, adierazitako ideiekin lotzen dira.</li> <li>- Testu kohesionatu bat sortzen du, beharrezko lokailuak eta testu-antolatzaileak erabilita.</li> <li>- Testu osoan erreferentea mantentzen du.</li> </ul>

## Ahozko ekoizpena

Ebaluazio irizpideak	Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<b>Informazioaren koherentzia eta progresioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ia aurrera egiten ez duen informazioa idazten du, kontraesan eta errepikapenekin.</li> <li>- Ideiak eta datuak ez dira ondo antolatuta agertzen.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurrera egiten duen informazioa idazten du, kontraesan edo errepikapenen batekin.</li> <li>- Ideiak eta datuak nahiko egitura logikoan antolatzen ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontraesan edo alferrikako errepikapenik gabe aurrera egiten duen informazioa idazten du.</li> <li>- Ideiak eta datuak egitura logiko batean antolatzen ditu.</li> </ul>
<b>Kohesio-mekanismoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kohesio gutxiko testua sortzen du, testu-lokailurik edo - antolatzailearik gabea.</li> <li>- Testuaren zati batzuetan erreferentea galtzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testu kohesionatu bat sortzen du, lokailu eta testu-antolatzaile batzuk erabiliz.</li> <li>- Testuaren zatirik handiengan erreferenteari eusten dio.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testu kohesionatu bat sortzen du, beharrezko lokailuak eta testu-antolatzaileak erabilia.</li> <li>- Testu osoan erreferentea mantentzen du.</li> </ul>
<b>Hitz-jarioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Etenka adierazten da, isiluneekin.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jariotasunez adierazten da, baina etenen batekin.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jariotasunez adierazten da.</li> </ul>

### 2.3. Gaitasun linguistikoa

Gaitasun linguistikoa ahozko edo idatzizko ekoizpen bat behar bezala egiteko testua hizkuntza-araudira egokitzen den propietatea da.

Ekoizpenak ebaluazio-irizpide hauen arabera ebaluatuko dira:

- **Lexikoa.** Eskatutako gaiari egokitzen zaizkion lexikoa eta esamoldeak erabiltzea.
- **Morfosintaxia.** Egitura gramatikal eta sintaktiko zuzenak (aditz-denborak, komunztadura, perpausaren barne-konposizioa, etab.) eta hainbat perpaus mota erabiltzea.
- **Ortografia eta puntuazioa (idatzizko ekoizpena).** Oinarrizko ortografia-arauak eta puntuazio-markak errespetatzea.
- **Ezaugarri prosodikoak (ahozko ekoizpena).** Ezaugarri prosodikoen erabilera egokia (intonazioa, ahoskera...).

Ebaluazio irizpideak	Lorpen adierazleak	
<b>Lexikoa</b>	<b>Ahozko eta idatzizko ekoizpena</b>	2.3.1. Eskatutako gaiari egokitutako lexikoa erabiltzen du.
<b>Morfosintaxia</b>		2.3.2. Gramatika-egiturak zuzen erabiltzen ditu (aditz-denborak, komunztadura...).
		2.3.3. Perpausak zuzentasunez osatzen ditu eta oinarrizko perpaus motak erabiltzen ditu.
<b>Ortografia eta puntuazioa</b>	<b>Idatzizko ekoizpena</b>	2.3.4. Oinarrizko ortografia-arauak errespetatzen ditu.
		2.3.5. Oinarrizko puntuazio-markak errespetatzen ditu.
<b>Ezaugarri prosodikoak</b>	<b>Ahozko ekoizpena</b>	2.3.6. Egokitasunez erabiltzen ditu oinarrizko ezaugarri prosodikoak (intonazioa, ahoskera...).

## Errendimendu mailak

## Idatzizko ekoizpena

Ebaluazio irizpideak	Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<b>Lexikoa</b>	- Testuaren lexikoa oinarritzkoa da.	- Testuak lexiko egokia du.	- Testuak lexiko egokia eta askotarikoa du.
<b>Morfosintaxia</b>	- Akatsak dituzten egitura gramatikalak erabiltzen ditu. - Perpaus sinpleak nolabaiteko zuzentasunez osatzen ditu.	- Oro har, gramatika-egiturak zuzentasunez erabiltzen ditu. - Perpausak zuzen konposatzen ditu eta oinarritzko perpaus motak erabiltzen ditu.	- Gramatika-egiturak zuzen erabiltzen ditu. - Perpausak zuzen osatzen ditu eta perpaus mota desberdinak erabiltzen ditu.
<b>Ortografia eta puntuazioa</b>	- Ortografian eta puntuazioan oinarritzko akatsak egiten ditu, eta horrek testua ulertzea zailtzen du.	- Testua behar bezala ulertzea ahalbidetzen duten oinarritzko ortografia- eta puntuazio-arauak errespetatzen ditu, nahiz eta akatsen bat ager daitekeen.	- Ortografia-arauak errespetatzen ditu, baita testua ulertzea errazten duten oinarritzko puntuazio-markak ere.



## Ahozko ekoizpena

Ebaluazio irizpideak	Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<b>Lexikoa</b>	- Diskurtsoaren lexikoa oinarritzkoa da; hiperonimoen erabilera.	- Diskurtsoak lexiko egokia du.	- Diskurtsoak lexiko egokia du.
<b>Morfosintaxia</b>	- Akatsak dituzten egitura gramatikalak erabiltzen ditu. - Perpaus sinpleak nolabaiteko zuzentasunez osatzen ditu.	- Oro har, gramatika-egiturak zuzentasunez erabiltzen ditu. - Perpausak zuzen konposatzen ditu eta oinarritzko perpaus motak erabiltzen ditu.	- Gramatika-egiturak zuzen erabiltzen ditu. - Perpausak zuzen osatzen ditu eta perpaus mota desberdinak erabiltzen ditu.
<b>Ezaugarri prosodikoak</b>	- Nahasmena sumatzen da ezaugarri prosodiko eta fonetikoei dagokienez (intonazioa, ahoskera...).	- Oinarritzko ezaugarri prosodikoak (intonazioa, ahoskera...) zuzen erabiltzen ditu, akats fonetikoren bat eginez.	- Ezaugarri prosodikoak (intonazioa, ahoskera...) zuzen erabiltzen ditu, eta diskurtso adierazkorra lortzen du.

### 3. DIMENTSIOAK, EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA LORPEN ADIERAZLEAK HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIAN ATZERRIKO HIZKUNTZAZ

Konpetentziaren ebaluazioan testua funtsezkoa da, itemak egiteko oinarria baita. Ahozko eta idatzizko testu horiek erabilera-esparruen, testu-moten eta testu-generoen inguruan antolatzen dira.

#### Erabilera-eremuak

- Pertsonen arteko harremanak
- Komunikabideak
- Hezkuntza
- Literatura

#### Testu motak

1. Deskribapena (ordutegiak, liburuxkak, mapak, deskribapenak...)
2. Narrazioa (kontakizunak, albisteak, eleberri zatiak...)
3. Azalpena (esplikazioak, oharak, aurkezpenak, azalpen-testuak...)
4. Argumentazioa (iragarkiak, debateak, zinema-kritikak...)
5. Instrukzioa (arauak, errezetak, jarraibideak...)
6. Transakzioa (mezuak, parte hartzeko programak, iritziak, gutunak, foroak...)

**Generoak:** dimentsio bakoitzean zehaztuko dira.

## 1 DIMENTSIOA: AHOZKO ETA IDATZIZKO ULERMENA

Honako irizpideak ikasleen garapen-mailari egokitutako testuak ulertzeko aplikatzen dira. Testu horiek hizkuntza estandarrean, modu ulergarrian eta argian adierazita egongo dira, hainbat euskarriren bidez. Ikaslearen esperientziatik hurbil dauden eguneroko gaiei buruzko testu laburrak izango dira, oso egitura erraz eta oso maiztasun handiko lexikoa erabiltzen dutenak. Bestalde, honako erabilera-eremu hauei buruzkoak izango dira: pertsonen arteko harremanak, komunikabideak, hezkuntza eta literatura.

Erabilera-eremuak	Generoak (testuak)
Pertsonen arteko harremanak	Elkarriketak, jarraibideak, esperientzien kontakizunak, mezu laburrak, arauak,...
Gizarte komunikabideak	Berriak, elkarriketak, oharpenak, iragarkiak,...
Hezkuntza	Deskribapenak (pertsonak, objektuak, animaliak...), jarraibideak, dokumentalak, aurkezpenak, azalpenak,...
Literarioa	Kantak, olerkiak, kontakizunak, antzezpenak, ipuinak,...

### 1.1. Zentzu orokorra ulertzea

#### Lorpen adierazleak

- 1.1.1. Testuaren gaia antzematen du. PK1
- 1.1.2. Testuaren ideia nagusia aurkitzen du. PK1
- 1.1.3. Testuaren sekuentzia antzematen du. PK1
- 1.1.4. Gaiari egokitzen zaion izenburu bat aukeratzen du. PK2

#### Errendimendu mailak

Hasierako maila	Erdi maila	Maila Aurreratua
Testuaren ideia batzuk ulertzen ditu baina gaia edo ideia nagusia ez du zehazten. Laguntza bisualarekin, sekuentziaren zati bat antzematen du.	Testuaren zentzu orokorra ulertzen du elementuak (gaia, ideia nagusia) agerikoak direnean eta sekuentzia argiak eta laburrak antzematen ditu. Gaia begi-bistakoa denean ere izenburu bat aukeratzen du.	Testuaren zentzu orokorra ulertzen du eta sekuentzia antzematen du. Gaiari egokitzen zaion izenburu bat ere aukeratzen du.

### 1.2. Informazio zehatza aurkitzea

#### Lorpen adierazleak

- 1.2.1. Testuaren informazio zehatza aurkitzen du. PK1
- 1.2.2. Lexikoaren eta maiz erabiltzen diren esapideen esanahia inferitzen du. PK2
- 1.2.3. Testuaren informazio zehatza erabiltzen du. PK2

#### Errendimendu mailak

Hasierako maila	Erdi maila	Maila Aurreratua
Eskatutako informazio oso errazen bat aurkitzen du. Horretaz gain, oso maiz erabiltzen den lexikoaren zati bat inferitzen du.	Informazio zehatz eta erraz gehiena aurkitzen du. Horretaz gain, lexikoa eta oso maiz erabiltzen diren esapide batzuk inferitzen ditu. Bestalde, oso ohikoak diren testuei buruzko oinarriko informazio zehatza ere erabiltzen du beste ataza bat egiteko.	Testuaren informazio zehatza aurkitzen du. Horretaz gain, lexikoa eta maiz erabiltzen diren esapideak inferitzen ditu. Bestalde, testuaren informazio zehatza ere erabiltzen du beste ataza bat egiteko.

### 1.3. Komunikazio-egoeraren elementuak antzematea

#### Lorpenadierazleak

- 1.3.1. Testuaren generoa identifikatzen du. PK1
- 1.3.2. Komunikazio-egoeraren osagaiak antzematen ditu (igorlea, hartzailea, kanala...). PK1
- 1.3.3. Testuaren ingurunea ondorioztatzen du (espazioa, denbora...). PK3
- 1.3.4. Testuaren testuingurua inferitzen du (erabilera-eremua). PK2
- 1.3.5. Testuaren xedea inferitzen du. PK2

#### Errendimendu mailak

Hasierako maila	Erdi maila	Maila Aurreratua
Oso ohikoa den generoren bat identifikatzen du eta oso testu labur eta hurbiletan ingurunea antzematen du.	Testuaren generoa identifikatzen du. Komunikazio-egoeraren osagaiak eta testuaren ezaugarri batzuk antzematen ditu. Bere esperientziatik hurbil dauden testuetan, testuaren xedea inferitzen du.	Testuaren generoa identifikatzen du. Komunikazio-egoeraren osagaiak eta testuaren ezaugarriak antzematen ditu. Era berean, testuaren xedea inferitzen du.

### 1.4. Inferentziak egitea eta testuaren edukia interpretatzea

#### Lorpen-adierazleak

- 1.4.1. Testuaren osagai ez-linguistikoen esanahia interpretatzen du. PK3
- 1.4.2. Testuaren edukia interpretatzen du norbere ezagutzetatik abiatuta. PK3
- 1.4.3. Testuaren edukiari buruzko inferentzia errazak egiten ditu. PK2
- 1.4.4. Deskribatutako gertaerak benetan gerta daitezkeen hausnartzen du. PK4

#### Errendimendu mailak

Hasierako maila	Erdi maila	Maila Aurreratua
Irudien, sinboloen eta abarren laguntzaz, osagai ez-linguistiko sinpleren baten esanahia interpretatzen du eta testuaren edukiaren oinarriko elementuren bat inferitzen du, bere ideietatik abiatuta.	Testuaren osagai ez-linguistikoak interpretatzen ditu eta testuaren edukiari buruzko inferentzia oso errazak egiten ditu. Deskribatutako gertaerak bere esperientziatik oso hurbil badaude, benetan gerta daitezkeen hausnartzen du.	Testuaren osagai ez-linguistikoak interpretatzen ditu eta testuaren edukiari buruzko inferentzia errazak egiten ditu. Deskribatutako gertaerak bere esperientziatik hurbil badaude, benetan gerta daitezkeen hausnartzen du.

### 1.5. Ezagutza linguistikoak erabili eta forma interpretatzea

#### Lorpen adierazleak

1.5.1. Ikasitako gramatika-ezagutzak erabiltzen ditu. PK2

1.5.2. Oso maiz erabiltzen den lexikoa inferitzen du, ahoskeraren (entzumena) edo ortografiaren (irakurmena) arabera. PK2

#### Errendimendu mailak

Hasierako maila	Erdi maila	Maila Aurreratua
Behin eta berriz erabiliz gero, oso erraza den gramatika-elementuren baten ezagutza erabiltzen du.	Oso erraza den gramatika-elementuen ezagutza erabiltzen du, eta oso maiz erabiltzen den lexikoa inferitzen du, ahoskeraren edo ortografiaren arabera.	Ikasitako elementu gramatikalen ezagutza erabiltzen du eta maiz erabiltzen den lexikoa inferitzen du, ahoskeraren edo ortografiaren arabera.

### 1.6. Hizkuntza aniztasuna baloratzea

#### Lorpen-adierazleak

1.6.1. Atzerriko hizkuntzaren oinarriko kultur ereduak identifikatzen ditu. PK1

1.6.2. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako ohiturei eta eguneroko bizitzari buruzko alderdi soziokultural esanguratsuenak inferitzen ditu. PK2

1.6.3. Hizkuntza-aniztasuneko egoeretan, oso kontzeptu edo testu laburrak interpretatzen ditu. PK3

#### Errendimendu mailak

Hasierako maila	Erdi maila	Maila Aurreratua
Oso oinarrikoak diren eta maiztasun handiz erabiltzen diren kultur eredu batzuk identifikatzen ditu, eta hainbat ikasturtetan behin eta berriz landu diren alderdi soziokulturalak inferitzen ditu.	Kultur eredu oinarrikoenak identifikatzen ditu eta atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeei buruzko alderdi soziokultural esanguratsuenak inferitzen ditu. Era berean, hizkuntza-aniztasuneko egoeretan, kontzeptuak interpretatzen ditu.	Oinarriko kultur ereduak identifikatzen ditu eta atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeei buruzko alderdi soziokultural esanguratsuenak inferitzen ditu. Era berean, hizkuntza-aniztasuneko egoeretan, oso kontzeptu edo testu laburrak interpretatzen ditu.

## 2 DIMENTSIOA: AHOZKO ETA IDATZIZKO EKOIZPENA

Ekoizpenaren dimentsioetan, ikasleak ahozko eta idatzizko testuak sortzen ditu. Adierazpen-trebetasunen ebaluazioa ez da prozesu kognitiboetatik abiatuta egingo, ulermenean bezala; aipatu prozesu kognitiboak zereginetan inplizituak daude, eta ahozko edo idatzizko azken produktuaren bidez ebaluatzen dira.

Ekoizpenaren esparruan ondorengo gaitasunak ebaluatuko dira:


2.1. Gaitasun soziolinguistikoa.

2.2. Gaitasun diskurtsiboa.

2.3. Gaitasun linguistikoa.

Gaitasun diskurtsiboaren barruan bitartekaritza dago, curriculumeko laugarren konpetentzia espezifikoa. Bitartekaritza, maila honetan, ingurune kooperatiboetan informazioa trukatzeko eta komunikazioa errazteko helburuarekin oinarritzko testu edo diskurtso erraz, koherente eta kohesionatuak sortzeko trebetasuna da. Bitartekotzan, ikasleek gizarte-eragile gisa jarduten dute, hizkuntza desberdinen artean ez ezik hizkuntza beraren barruan ere mezuak eraikitzen laguntzeko.

Gaitasun hauek ebaluazio-irizpideen bidez ebaluatzen dira; hauek, era berean, lorpen-adierazleetan eta hasierako errendimendu-maila, erdikoa eta aurreratuan zehazten dira. Ondoren, gaitasun hauek errubrika batean antolatuko dira, ikasleen ekoizpenak ebaluatzeko. Graduazioa taula honetan ageri da:



LHko 4. mailan ikasleei ahozko edo idatzizko testuak sortzeko eskatzen zaie, komunikazio-egoera jakin baten ereduari jarraituz. Testu horiek errazak dira, egitura sinpleak eta maiz erabiltzen den lexikoarekin ikasleen interesetatik eta esperientzietatik hurbil dauden esparru edo gaiei buruzkoak.

Erabilera eremuak	Generoak (ahozko testuak)	Generoak (idatzizko testuak)
Pertsonen arteko harremanak	Jarraibideak, esperientzien kontakizunak, mezu laburrak...	Gutunak, egunerokoa, gonbidapenak, oharpenak, oharak, errezetak, elkarrizketak...
Komunikabideak	Berriak, elkarrizketak, oharpenak...	Iragarkiak, hizketaldiak, eguraldiari buruzko informazioa, informazio artikulua, berriak...
Akademikoa	Deskribapenak (pertsonak, objektuak, animaliak...), oinarritzko jarraibideak, definizioak, azalpenak...	Deskribapenak (pertsonak, objektuak, animaliak...), oinarritzko jarraibideak, azalpenak, biografiak...
Literatura	Kantak, kontakizun laburrak, ipuinak...	Olerkiak, kontakizun laburrak, ipuinak...

Ondoren, gaitasunak, ebaluazio irizpideak eta horien lorpen adierazleak deskribatzen dira, baita horietako bakoitzaren errendimendu-mailak ere.

## EKOIZPENAREN GAITASUNAK

### 2.1. Gaitasun soziolinguistikoa

Gaitasun soziolinguistikoak testua planteatutako komunikazio-egoerara eta diskurtso-testuingurura egokitzeari erreferentzia egiten dio. Gainera, testua edo diskurtsoa eskatutako gaiari eta testuinguruak eskatzen duen erregistroari egokitasunez doitzen zaion aintzat hartzen du. Atal honetan, ahozko ekoizpenaren eta solaskideekiko ahozko elkarreraginaren autonomia ere kontuan hartuko da.

Ekoizpenak ebaluazio-irizpide hauen arabera ebaluatzen dira:

- **Testuaren helburua.** Helburua da testuaren edo diskurtsoaren helburua errespetatzea, testu-motaren edo -generoaren ezaugarriei dagokienez, komunikazio-egoera kontuan hartuta.
- **Gaiaren egokitasuna eta garapena.** Ahozko edo idatzizko ekoizpenak estimulan zehazten den gaiari buruzkoa izan behar du, eta behar bezala garatuta egon behar du.
- **Autonomia (ahozko ekoizpena).** Autonomia ahozko testua sortzeko independentzia eta komunikazioa mantentzeko estrategien erabilera da (galderak, laguntza eskatzea, beste hizkuntza batzuetako hitzak...).
- **Elkarreragina (ahozko ekoizpena).** Elkarreraginak elkarrizketetan parte hartzea, entzute aktiborako jarrera eta elkarrizketa-estrategien erabilera biltzen ditu (esku-hartzeak eta hitz egiteko txanda errespetatzea, kortesiazko formulak...).

### Lorpen adierazleak

Ebaluazio irizpideak		Lorpen adierazleak
Testuaren helburua	Ahozko eta idatzizko	2.1.1. Testuaren edo diskurtsoaren helburua errespetatzen du.
Gaiaren egokitasuna eta garapena		2.1.2. Testua edo diskurtsoa proposatutako gaira egokitzen du. 2.1.3. Gaia modu onargarrian garatzen du.
Hizkuntza ez-diskriminatzailea	Ahozko ekoizpena	2.1.4. Aztertzailearen laguntza puntualarekin adierazten da. 2.1.5. Komunikazioari eusteko oinarritzko estrategiak erabiltzen ditu (keinuak, beste hizkuntza batzuetan eskuratutako ezagutzak, laguntza eskatzea...).
Autonomia		2.1.6. Galdera oso errazak erantzuten ditu. 2.1.7. Oinarritzko gaiei buruzko galderak egiten ditu. 2.1.8. Entzute aktiboa mantentzen du. 2.1.9. Oinarritzko elkarrizketa-estrategiak erabiltzen ditu (ikusizko kontaktua, kortesiazko formulak...).

## Errendimendu mailak

## Idatzizko ekoizpena

Ebaluazio irizpideak	Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<b>Testuaren helburua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zailtasun handia du proposatutako zereginera egokitzeko. Komunikazio-xedea hautematen ez den beste genero bat edo esaldi solte batzuk idatzi ahal izan ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testuaren komunikazio-xedea errespetatzen du: oro har, proposatutako generoari buruz idatzi duela antzematen da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testuaren komunikazio-xedea lortu da: proposatutako generoari buruz idatzi du.</li> </ul>
<b>Gaiaren egokitasuna eta garapena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testua zati batean egokitzen da gaira edo beste gai bati heltzen dio.</li> <li>- Gaiaren inguruan eskatutako informazioaren elementu batzuk egon daitezke, telegrafikoki idatzita eta xehetasunik gabe.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testua, oro har, gaiari egokitzen zaio.</li> <li>- Gaia eskatutako informazioarekin garatzen du. Hala ere, baliteke zehaztasun gutxikoa izatea edo elementuren bat falta izatea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testua gaiari egokitzen zaio.</li> <li>- Gaia eskatutako informazioarekin garatzen du eta informazio berria gehitzen du.</li> </ul>



## Ahozko ekoizpena

Ebaluazio irizpideak	Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<b>Testuaren helburua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zailtasun handia du proposatutako zereginera egokitze edo aztertzailearen laguntza handiarekin egiten du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Oro har, diskurtsoaren helburua betetzen da, generoari edo diskurtso-motari dagokionez.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Diskurtsoaren helburua betetzen da, generoari edo diskurtso-motari dagokionez.</li> </ul>
<b>Gaiaren egokitasuna eta garapena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Diskurtsoko elementuren bat bakarrik egokitzen zaio proposatutako gaiari edo beste gai bati heltzen dio.</li> <li>- Gaiaren garapena oso eskasa da. Hitz solteekin eta xehetasunik gabe adierazten da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Diskurtsoa, oro har, proposatutako gaiari egokitzen zaio.</li> <li>- Gaia nahikoa garatzen da. Batzuetan, laburra edo zehaztasun gutxikoa izaten da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Diskurtsoa proposatutako gaiari egokitzen zaio.</li> <li>- Gaia egokitasunez garatzen du, xehetasunak edo informazio berria ematen du.</li> </ul>
<b>Autonomia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aztertzailearen laguntza handia behar du.</li> <li>- Keinuak erabiltzen ditu komunikazioari eusteko.</li> <li>- Beste hizkuntza batean komunikatzen da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aztertzailearen laguntza puntualarekin adierazten da.</li> <li>- Oinarritzko estrategia batzuk erabiltzen ditu komunikazioari eusteko: keinuak, beste hizkuntza batzuetan eskuratutako ezagutzak...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Nahiko modu autonomoan hitz egiten du, ia ez du aztertzailearen laguntzarik behar.</li> <li>- Komunikazioari eusteko oinarritzko estrategiak erabiltzen ditu: keinuak, beste hizkuntza batzuetan eskuratutako ezagutzak, argibideak edo laguntza eskatzea.</li> </ul>
<b>Elkarreragina</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Oso ohiko gaiei buruzko oinarritzko galderaren bati erantzuten dio.</li> <li>- Ia ez du elkarrizketa-estrategiarik erabiltzen, parte-hartze faltagatik.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Oso ohiko gaiei buruzko oinarritzko galderei erantzuten die.</li> <li>- Oso ohiko gaiei buruzko galderaren bat egin du.</li> <li>- Oro har, entzute aktiboa erakusten du.</li> <li>- Elkarrizketa-estrategia oinarritzkoenak erabiltzen ditu (ikusizko kontaktua, kortesiazko formulak...).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ohiko gaiei buruzko oinarritzko galderei erantzuten die.</li> <li>- Ohiko gaiei buruzko galderaren bat egin du.</li> <li>- Entzute aktiboa erakusten du.</li> <li>- Elkarrizketa-estrategia oinarritzkoenak erabiltzen ditu (ikusizko kontaktua, kortesiazko formulak...).</li> </ul>

## 2.2. Gaitasun diskurtsiboa

Diskurtso-gaitasunak, funtsean, ahozko edo idatzizko testuaren koherentziari eta kohesioari erreferentzia egiten dio.

Koherentzia testuaren edukia zentzu-unitate bakar gisa modu globalean antolatzeko propietatea da, informazioaren hautaketa eta ideien garapena aintzat hartuz.

Kohesioak, bestalde, testuaren informazioaren arteko erlazioak ezartzea ahalbidetzen duten hizkuntza-mekanismoak biltzen ditu.

Gainera, ahozko adierazpenean, irizpide honek komunikazioa zein jariakortasunekin gertatzen den ebaluatzen du.

Ekoizpenak ebaluazio-irizpide hauen arabera ebaluatuko dira:

- **Egitura.** Testu edo diskurtso mota bakoitza osatzen duten zatiak dira (narrazioan: aurkezpena-garapena-amaiera).
- **Informazioaren koherentzia eta progresioa.** Informazioa egoki hautatzea da: berria, garrantzitsua, errepikapenik gabea, datu koherenteekin, hitzik gabe beste hizkuntza batean, eta ideiak modu logiko eta ordenatuan antolatzeaz. Diskurtsoa ulergarria izatea ere barne hartzen du. Grafiak edo ahoskerak arreta handiagoa behar dezake irakurlearen edo solaskidearen aldetik, baina produktua ulertu egiten da.
- **Kohesio-mekanismoak.** Testu edo diskurtso kohesionatu bat egiteko beharrezkoak diren lokailuak eta testu-antolatzaileak, paragrafoen banaketa (testuak hala eskatzen duenean) eta abar aipatzen ditu.
- **Hitz-jarioa (ahozko ekoizpena).** Erritmo egokian adieraztean datza, gehiegizko ebaketak edo etenaldiak saihestuz.

### Lorpen adierazleak

Ebaluazio-irizpideak	Lorpen adierazleak	
<b>Egitura</b>	<b>Ahozko edota idatzizko ekoizpena</b>	2.2.1. Ereduaren testu-egitura erabiltzen du.
<b>Informazioaren koherentzia eta progresioa</b>		2.2.2. Bere ideiak era ulergarrian adierazten ditu. 2.2.3. Testua edo diskurtsoa ideien progresio logiko eta koherentearekin egituratzen du, estimuluan agertzen den laguntza kontuan hartuta. 2.2.4. Estrategia errazen bat erabiltzen du (hitzak ordezkatzeko), hainbat testuingurutan (linguistikoak eta kulturalak) komunikazioa errazteko. 2.2.5. Zenbait testuingurutan (linguistikoak eta kulturalak) komunikazioa errazteko informazio errazen bat itzultzen du.
<b>Kohesio-mekanismoak</b>		2.2.6. Testu idatzia paragrafo batean edo gehiagotan ordenatzen du. 2.2.7. Oinarrizko kohesio-prozedurak erabiltzen ditu: konektore ohikoenak.
<b>Hitz-jarioa</b>	<b>Ahozko ekoizpen</b>	2.2.8. Ahoz adierazten da, zalantza batzuekin.

## Errendimendu mailak

## Idatzizko ekoizpena

Ebaluazio irizpideak	Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<b>Egitura</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ereduaren egitura partzialki errespetatzen du. Elementuak falta zaizkio eta/edo proposatutako alderdien ordena aldatzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Oro har, ereduaren egitura errespetatzen du. Beste testu-mota bateko elementuren bat txerta dezake eta/edo proposatutako alderdiren baten ordena alda dezake.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ereduaren egitura errespetatzen du. Proposatutako alderdien ordena jarraitzen du.</li> </ul>
<b>Informazioaren koherentzia eta progresioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testua berrirakurri behar da edukia ulertzeko.</li> <li>- Ideiak desordenatuta daude.</li> <li>- Informazioaren zati bat garrantzi gutxikoa da, errepikapenekin, datu inkoherenteekin eta hitz batzuk beste hizkuntza batean agertu ohi dira.</li> <li>- Estrategia oso errazen bat erabiltzen du (hitzak ordezkatzeko) hurbileko testuinguruetan komunikazioa errazteko.</li> <li>- Oso informazio erraza itzultzen du komunikazioa errazteko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testua lehen irakurketa batean ulertzen da.</li> <li>- Ideia gehienak modu logikoan antolatuta agertzen dira.</li> <li>- Ia beti informazio berria eta garrantzitsua agertzen da, nahiz eta errepikapen batzuk, datu inkoherenteren bat eta hitz solteren bat beste hizkuntza batean ager daitekeen.</li> <li>- Estrategia errazen bat erabiltzen du (hitzak ordezkatzeko), hainbat testuingurutan komunikazioa errazteko.</li> <li>- Informazio errazen bat itzultzen du komunikazioa errazteko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Testua erraz ulertzen da lehen irakurraldian.</li> <li>- Ideiak modu logikoan antolatuta agertzen dira.</li> <li>- Informazio berria eta garrantzitsua agertzen da, errepikapenik eta datu inkoherenterik gabe.</li> <li>- Estrategia errazen bat erabiltzen du (hitzak ordezkatzeko), hainbat testuingurutan komunikazioa errazteko.</li> <li>- Informazio errazak eta garrantzitsuak itzultzen ditu komunikazioa errazteko.</li> </ul>
<b>Kohesio-mekanismoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Batzuetan ez ditu paragrafoak erabiltzen.</li> <li>- Informazioa lotzeko ez du ia konektorerik erabiltzen; oro har, <i>and</i>-era mugatzen da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ideia gehienak paragrafo batean edo gehiagotan ordenatuta daude.</li> <li>- Informazioa lotzeko juntagailu, konektore eta/edo markagailuren bat erabiltzen du, adibidez: <i>and, but, or...</i></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ideiak paragrafo batean edo gehiagotan ordenatuta daude.</li> <li>- Informazioa lotzeko juntagailuak, konektoreak eta markatzaileak erabiltzen ditu, hala nola: <i>and, but, or, because, also</i>, izenordainak, erakusleak...</li> </ul>

## Ahozko ekoizpena

Ebaluazio irizpideak	Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<b>Egitura</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Diskurtsoaren egitura partzialki errespetatzen du. Proposatutako ereduaren elementuak falta izaten dira.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Oro har, diskurtsoaren egitura errespetatzen du.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Diskurtsoaren egitura errespetatzen du.</li> </ul>
<b>Informazioaren koherentzia eta progresioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Azalpenak eskatu behar zaizkio diskurtsoa ulertzeko.</li> <li>- Ideiak desordenatuta daude.</li> <li>- Informazio gehiena garrantzi gutxikoa da, errepikapenekin, datu inkoherenteekin eta hitz batzuk beste hizkuntza batean ager daitezke.</li> <li>- Estrategia oso errazen bat erabiltzen du (informazioa ordezkatzeko) hurbileko testuinguruetan komunikazioa errazteko.</li> <li>- Oso informazio erraza itzultzen du komunikazioa errazteko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Diskurtsoa ulertzen da.</li> <li>- Ideia gehienak modu logikoan antolatuta agertzen dira.</li> <li>- Ia beti informazio berria eta garrantzitsua ematen du, nahiz eta errepikapen batzuk, datu inkoherenteren bat eta hitz solteren bat beste hizkuntza batean ager daitezkeen.</li> <li>- Estrategia errazen bat erabiltzen du (informazioa ordezkatzeko), hainbat testuingurutan komunikazioa errazteko.</li> <li>- Informazio errazen bat itzultzen du komunikazioa errazteko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Diskurtsoa erraz ulertzen da.</li> <li>- Ideiak modu logikoan antolatuta adierazten ditu.</li> <li>- Informazio berria eta garrantzitsua agertzen da, errepikapenik eta datu inkoherenterik gabe.</li> <li>- Estrategia errazak erabiltzen ditu (informazioa ordezkatzeko, adibideak ematea), hainbat testuingurutan komunikazioa errazteko.</li> <li>- Informazio errazak eta garrantzitsuak itzultzen ditu komunikazioa errazteko.</li> </ul>
<b>Kohesio-mekanismoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hitz edo perpaus solte eta batzuetan osatugabeekin adierazten da.</li> <li>- Ia ez du juntagailurik, konektorerik eta/edo markatzailerik erabiltzen informazioa lotzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Informazioa lotzeko juntagailu, konektore eta/edo markagailuren bat erabiltzen du, adibidez: <i>and, but, or...</i></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Informazioa lotzeko juntagailu, konektore eta/edo markagailuren bat erabiltzen du, adibidez: <i>and, but, or, because</i>, izenordainak, erakusleak...</li> </ul>
<b>Hitz-jarioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bere diskurtsoa ez da oso arina, etena da, zalantza ugari ditu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erritmo onargarria mantentzen du, nahiz eta batzuetan pentsatzeko mozketak edo etenaldiak egiten dituen.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erritmo egokia mantentzen du, nahiz eta pentsatzeko etenaldiren bat egin dezakeen.</li> </ul>

### 2.3. Gaitasun linguistikoa

Gaitasun linguistikoa ahozko edo idatzizko ekoizpen bat behar bezala egiteko testua hizkuntza-araudira egokitzen den propietatea da.

Ekoizpenak ebaluazio-irizpide hauen arabera ebaluatuko dira:

- **Lexikoa.** Eskatutako gaiari egokitzen zaizkion lexikoa eta esamoldeak erabiltzea.
- **Morfosintaxia.** Egitura gramatikal eta sintaktiko zuzenak (aditz-denborak, komunztadura, perpausaren barne-konposizioa, etab.) eta hainbat perpaus mota erabiltzea.
- **Ortografia eta puntuazioa (idatzizko ekoizpena).** Oinarrizko ortografia-arauak eta puntuazio-markak errespetatzea.
- **Ezaugarri prosodikoak (ahozko ekoizpena).** Ezaugarri prosodikoen erabilera egokia (intonazioa, ahoskera...).

#### Lorpen adierazleak

Ebaluazio-irizpideak	Lorpen adierazleak	
<b>Lexikoa</b>	<b>Ahozko eta idatzizko</b>	2.3.1. Oso maiz erabiltzen diren lexikoa eta esamoldeak erabiltzen ditu.
<b>Morfosintaxia</b>		2.3.2. Ikasitako gramatika-ezagutzak erabiltzen ditu: morfologia eta sintaxia.
<b>Ortografia eta puntuazioa</b>	<b>Idatzizko ekoizpena</b>	2.3.3. Maiz erabiltzen diren hitzen ortografia-arau oinarrizkoenak errespetatzen ditu. 2.3.4. Puntuazio-marka oinarrizkoenak errespetatzen ditu.
<b>Ezaugarri prosodikoak</b>	<b>Ahozko ekoizpena</b>	2.3.5. Modu onargarrian erabiltzen ditu ezaugarri prosodikoak (intonazioa, ahoskera...).

## Errendimendu mailak

## Idatzizko ekoizpena

Ebaluazio irizpideak	Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<b>Lexikoa</b>	- Lexikoa ez da oso egokia: errepikakorra da. Beste hizkuntza bateko hitzak erabiltzen ditu, atzerriko hizkuntzan baliabiderik ez duelako.	- Lexikoa onargarria da, baina beste hizkuntza bateko hitzen bat erabil dezake komunikazioa bermatzeko.	- Lexiko egokia erabiltzen du. - Beste hizkuntza batzuetan hitzak erabiltzea saihesten du.
<b>Morfosintaxia</b>	- Gramatika-akats errepikakor ugari ditu, askotan komunikazioa zailtzen dutenak.	- Testuaren gramatika-akatsak ez dute komunikazioa eragozten.	- Testua nahiko zuzena da, nahiz eta gramatika-akats larria egon daitekeen 40 hitz bakoitzeko. 40 hitz bakoitzeko bi akats arin ere egon daitezke.
<b>Ortografia eta puntuazioa</b>	- Gramatika- eta ortografia-akats errepikakor dezente ditu, batzuetan komunikazioa zailtzen dutenak. - Hitzak ahoskatzen diren moduan idazten ditu.	- Testuaren gramatika- eta ortografia-akatsak ez dute komunikazioa eragozten.	- Testua nahiko zuzena da, nahiz eta gramatika-akats larria egon daitekeen 40 hitz bakoitzeko. 40 hitz bakoitzeko bi akats arin ere egon daitezke.

## Ahozko ekoizpena

Ebaluazio irizpideak	Hasierako maila	Erdi-maila	Maila aurreratua
<b>Lexikoa</b>	- Lexikoa ez da oso egokia: errepikakorra da. Beste hizkuntza bateko hitzak erabiltzen ditu, atzerriko hizkuntzan baliabiderik ez duelako.	- Lexikoa onargarria da, baina beste hizkuntza bateko hitzen bat erabil dezake komunikazioa bermatzeko.	- Proposatutako egoerarako lexiko egokia erabiltzen du.
<b>Morfosintaxia</b>	- Gramatika-akats errepikakor ugari ditu, askotan komunikazioa zailtzen dutenak.	- Testuaren gramatika-akatsak ez dute komunikazioa eragozten.	- Diskurtsoa nahiko zuzena da, nahiz eta gramatika-akats larri edo arinen bat egin dezakeen.
<b>Ezaugarri prosodikoak</b>	- Diskurtsoan tonu monotonoa erabiltzen du. - Ahoskera ez da oso egokia eta, askotan, diskurtsoa ulertezina da.	- Intonazioa onargarria da. - Akatsak egiten ditu ahoskeran, baina diskurtsoa ulergarria da.	- Modu onargarrian erabiltzen ditu ezaugarri prosodikoak (intonazioa, ahoskera...).

## I. ERANSKINA

### LH4. MAILAKO EBALUAZIO IRIZPIDEEN ETA CURRICULUMEN KOMPETENTZIA ESPEZIFIKOEN (KE) LOTURAK EUSKARA ETA GAZTELANIA

DIMENTSIOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	LH4
1. ULERMENA	1.1. Zentzu orokorra ulertzea.	KE2, KE4
	1.2. Informazio zehatza aurkitzea.	KE6
	1.3. Komunikazio-egoeraren elementuak antzematea.	KE2, KE4, KE6
	1.4. Inferentziak egin eta testua interpretatzea.	KE2, KE4, KE6, KE10
	1.5. Ezagutza linguistikoak erabili eta forma interpretatzea.	KE2, KE4, KE9
	1.6. EAEko Hizkuntza-aniztasuna baloratzea.	KE1, KE8, KE10
2. EKOIZPENA	2.1. Konpetentzia soziolinguistikoa.	KE3, KE5, KE8, KE10
	2.2. Konpetentzia diskurtsiboa.	KE3, KE5, KE6
	2.3. Konpetentzia linguistikoa	KE3, KE5, KE9

### ATZERRIKO HIZKUNTZA

DIMENTSIOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	LH4
1. ULERMENA	1.1. Zentzu orokorra ulertzea.	KE1
	1.2. Informazio zehatza aurkitzea.	KE1
	1.3. Komunikazio-egoeraren elementuak antzematea.	KE1
	1.4. Inferentziak egin eta testua interpretatzea.	KE1
	1.5. Ezagutza linguistikoak erabili eta forma interpretatzea.	KE5
	1.6. EAEko Hizkuntza-aniztasuna baloratzea.	KE4, KE6
2. EKOIZPENA	2.1. Konpetentzia soziolinguistikoa.	KE2, KE3
	2.2. Konpetentzia diskurtsiboa.	KE2, KE3
	2.3. Konpetentzia linguistikoa	KE2, KE3

## II. ERANSKINA

### LH4. LORPEN ADIERAZLEAK ETA PROZESU KOGNITIBOAK (PK)

PK	LH4. LORPEN ADIERAZLEAK EUSKARA ETA GAZTELANIA
PK1	1.1.1. Testuaren gaia antzematen du.
	1.1.2. Ideia nagusia antzematen du.
	1.1.4. Testuaren sekuentziak edo egitura antzematen du.
	1.2.1. Informazio zehatza aurkitzen du.
	1.3.1. Komunikazio-egoeraren osagaiak antzematen ditu (igorlea, hartzailea...).
	1.3.5. Ataza bat ebazteko iturriak egokiena, analogikoa edo digitala, hautatzen du.
	1.4.7. Hizkuntzaren erabilera inklusibo eta diskriminatzaile nabarmenak identifikatzen ditu.
PK2	1.1.3. Gaiari egokitzen zaion izenburua hautatzen du.
	1.2.2. Antzeko datuak edo informazio zehatza erabiltzen du.
	1.3.2. Testuaren helburua inferitzen du.
	1.5.1. Testuaren ulermenean hizkuntza-ezagutzak erabiltzen ditu.
	1.5.4. Testuan erabilitako hiztegia antzematen du.
	1.6.4. Ahozko eta idatziko testuen oinarriko alderdiak beste adierazpen artistiko edo kultural ezagun batzuekin erlazionatzen ditu.
	1.6.5. Hizkuntza ofizialak erlazionatzen ditu ulermena hobetzeko (terminoen itzulpenak, transferentziak...).
	1.1.3. Gaiari egokitzen zaion izenburua hautatzen du.
PK3	1.3.3. Testu-mota, erabilera-eremua edo generoa ondorioztatzen du.
	1.3.4. Testua zein inguruetan kokatzen den ondorioztatzen du (espazioa eta denbora)
	1.4.1. Testuaren edukia interpretatzen du, bere ezagutzetatik abiatuta.
	1.4.2. Testu baten edo iturri desberdinetako testuen edukari buruzko oinarriko inferentziak egiten ditu.
	1.4.4. Testuaren fidagarritasuna ondorioztatzen du (benetako informazioa, iritziak...) euskarri desberdinetan.
	1.4.5. Testu baten edo batzuen argudio errazak interpretatzen ditu.
	1.4.6. Edukizko baliabide estilistikoak interpretatzen ditu (konparazioa, hiperbolea, kontrastea...).
	1.5.2. Ahozko testuaren elementu ez-linguistikoak (barreak, isiluneak, keinuak...) eta idatzizkoarenak (letra lodia, irudiak, sinboloak...) interpretatzen ditu.
	1.5.3. Formari buruzko baliabide estilistikoak interpretatzen ditu (onomatopeiak, errepikapenak...).
	1.3.3. Testu-mota, erabilera-eremua edo generoa ondorioztatzen du.
PK4	1.4.3. Testuaren edukari buruzko oinarriko hipotesiak egiten ditu (adibidez, testu bat nola amaitu daitekeen, emandako informazioa errealitatean gerta daitekeen...).
	1.6.1. EAEko hizkuntza ofizialak balioesten ditu.
	1.6.2. Inguruko hizkuntza- eta kultura-aniztasuna balioesten ditu.
	1.6.3. Euskal kultura-aherastasuna eta aherastasun unibertsala hainbat adierazpen artistiko edo kulturalen bidez (gazte-literaturako edo literatura klasikoko testuak, bertsolaritza...) interpretatzen ditu.



PK	LH4. LORPEN ADIERAZLEAK ATZERRIKO HIZKUNTZA
PK1	1.1.1. Testuaren gaia antzematen du.
	1.1.2. Testuaren ideia nagusia aurkitzen du.
	1.1.3. Testuaren sekuentzia antzematen du.
	1.2.1. Testuaren informazio zehatza aurkitzen du.
	1.3.1. Testuaren generoa identifikatzen du.
	1.3.2. Komunikazio-egoeraren osagaiak antzematen ditu (igorlea, hartzailea, kanala...).
	1.6.1. Atzerriko hizkuntzaren oinarrizko kultur ereduak identifikatzen ditu.
PK2	1.1.4. Gaiari egokitzen zaion izenburu bat aukeratzen du.
	1.2.2. Lexikoaren eta maiz erabiltzen diren esapideen esanahia inferitzen du.
	1.2.3. Testuaren informazio zehatza erabiltzen du.
	1.3.4. Testuaren testuingurua inferitzen du (erabilera-eremua).
	1.3.5. Testuaren xedea inferitzen du.
	1.4.3. Testuaren edukiari buruzko inferentzia errazak egiten ditu.
	1.5.1. Ikasitako gramatika-ezagutzak erabiltzen ditu.
	1.5.2. Oso maiz erabiltzen den lexikoa inferitzen du, ahoskeraren (entzumena) edo ortografiaren (irakurmena) arabera.
	1.6.2. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako ohiturei eta eguneroko bizitzari buruzko alderdi soziokultural esanguratsuenak inferitzen ditu.
PK3	1.3.3. Testuaren ingurunea ondorioztatzen du (espazioa, denbora...).
	1.4.1. Testuaren osagai ez-linguistikoen esanahia interpretatzen du.
	1.4.2. Testuaren edukia interpretatzen du norbere ezagutzetatik abiatuta.
	1.6.3. Hizkuntza-aniztasuneko egoeretan, oso kontzeptu edo testu laburrak interpretatzen ditu.
PK4	1.4.4. Deskribatutako gertaerak benetan gerta daitezkeen hausnartzen du.